

Datorren astean XXII. Sagardo Eguna izango da Donostian. Helduenek, 1986.ean antolatu zen lehen dastaketa handi hura gogoan izango dute. **TESTUA A.Z.**

# Txotxean bai, botilan ere bai

“**S**AGARDOA ez da txotxean bukatzen. Sagardotegitik kalera eramán nahi genuen, botilan baitago bere izaera”. Barkaitz-tegiko Jose Mari Irizar izan zen duela 22 urte Donostiako lehen Sagardo Eguna antolatzen aritu zenetakoa bat. Orduetik, sagardo dastaketak biderkatu egin dira eta uda guztian zehar hamalaka herritako festetan antolatu dituzte. “Egia esan, herriz herri ibiltzen ginen urte batzuk lehenago, Donostian gauza handiago bat egin aurretik”, azaldu du Irizarrek.

Aurreko urte haietan dastaketa egiteaz gain, lehiaketa ere egiten zuten.

Epaimahala zegoen eta, normalean, txakolinarekin eta gaztarekin batera aur-

ten zuten sagardogileek haien edaria. “Urte haietan sagardoak nahiko izaera hotza zuen; txotx garalan jendea etortzen zen, baina botilak ez zituzten erosten eta hori promozionatu nahi genuen, edaria kaleratu”, alpatu du Irizarrek.

Herritan arrakasta zutela eta “gauza handi bat” antolatzea pentsatzen hasi ziren sagardogilean 1986 urtean. Iralleko lehenengo larunbata aukeratu eta, Udalaren laguntzaz, Konstituzio plazako arkupeak postuz bete zituzten. Goizetik arratsaldera arte, sagardoa barra-barra banatu zuten bertara gerturatu ziren milaka pertsonen artean.

Orduetik, Donostiako Sagardo Eguna ez du aldaketa handirik jasan. Nagusia, hasiera batean basoa lortzeko ordaindu beharrik ez zegoela. “Baserrian bezala egiten genuen: sagardogileok basoak eramán, edaria zerbitzatu, herri-



60ko hamarkadan Trinitateko plazan egindako lehiaketa, Sagardo Eguna antolatu aurretik. **ARGAZKIA: J. IRIZAR**

tarrek tragua eman eta basoa banatzen ziguten. Guk kubo handi bat genuen urez beteta eta hor bustitzen genuen edalontzia hurrengo sagardozaleari eman aurretik”, azaldu du Irizarrek.

Donostiako Alde Zaharra bete egin zuten lehenengo urte hartan eta Sagardo Eguna beste herritan ere antolatzen hasi ziren. Sagardogileek zozketaz aukeratzeko nahi zuten zein josten go zen herri batera edo bestera, zazpi herritan egiten zituzten lehiaketekin lagundua emateko bad ere orain ez dute. Konstituzio plazako (gaurko horretako) final bat ere hartu zuten 80ko hamarkadan. Dena den, txakolinarekin bakar bastez trabatzen zuela eta Sagardo Eguna herri-olagoa izatea nahi zutenen, lehiaketak berritu eta dastaketan egin zuten indarra.

## AURTENGO HITZORDUA Ostalariei omenaldia

Orduetik urterio bisitatu dute sagardogileek Donostiako Konstituzio plaza eta datorren larunbatean ere, irailaren leian, bertan izango dira. Urte haietan guztietan edaria promozionatzea lortu dute, eta sagardoa botilian gero eta gehiago saltzea ere bai. Gainera, kontsumitzaileek sagardoa hobeto ezagutzen ere lortu dute. Aurretik, adibidez, poltsiko gida batzuk banatuko dizkiete bisitariei Donostian, sagardoa nola dastatu, nola zerbitzatu eta nola kontserbatu behar den azaltzen dutenak.

Sagardo botilen arrakastan ostalariek ere izan dute zerikusirik eta hori dela eta, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak omenaldia dituzte Konstituzio plazan datorren astelehen Sagardo Egunean. Normalean, jubilatzen diren sagardogileek jasotzen dute omenaldia baina aurten ino jubilatzen ez zela eta, taberna eta jatetxeetako ordezkariak baino lan eskerteko aukera ez zuela galdutik erabaki zuten Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak.



Donostiako Sagardo Eguneko baso bat. Aurreko urtetakoa izan arren, las Konstituzio plazan berriz bete egin zuten. **ARGAZKIA: R.P.**

**Hasieran, Sagardo Egunean lehiaketa egiten zuten eta epaimahaiak edaririk onena aukeratzeko zuten**

**Aurten poltsikozko gidak banatuko dituzte sagardoa dastatzen, zerbitzatzeko eta kontserbatzeko ikasteko**

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Nabarra Oñatez 7 behea, 20.115

ASTIGARRAGA.

TLF. 943 336 811 - FAX. 943 333 790

e-mail: gipuzkoako@sagardotegiak.com;

web: www.sagardotegiak.com.

